


Leonardoren hegoak

Abentura ero bat Florentzian

Fernando Morillo

IBAIZABAL



Jone Muñoz
Miren González
DBH4, 2014-15

Aurkibidea

Fernando Morillo.....3

Sarrera.....3

Leonardoren hegoak

- Kokapena4
- Gaia.....5
- Argumentua.....5
- Gertakizun nagusiak.....5
- Egituraketa.....7
- Pertsonaiak.....7
- Baliabideak.....9
- Iritzia.....10

Bibliografia.....11

Webgrafia.....11

Fernando Morillo

Fernando Morillo 1974ko maiatzaren 3an jaioakoa idazle Azpeitiarra (Gipuzkoarra) da.

Fisika eta Filosofia ikasketak egin zituen, baina txikitatik literaturaren bidetara ekin zion. Umea zenetik istorioak maite ditu eta guztiak irensten ditu. Leku ezezagunetara joatea eta mendian galtzea gustatzen zaio bereziki, eta haiei buruz idazten du askotan.



Gazte literatura da gehienbat landu duen arloa eta hainbat sari irabazi ditu genero horretan. Euskadi irratia, Egunkaria eta Gara hedabideetan kolaborazio lanetan aritu izan da. 2011. urtean Gaumin argitaletxea sortu zuen, batik bat haur eta gazte literatura bultzatzeko asmoz. 2003an Euskadi Saria jaso zuen *Izar-malkoak* obrarekin, eta 2009an *Leonardoren hegoak*-ekin. Azken honen gaztelaniazko bertsioarekin ere irabazi zuen sari bat, eta beste asko beste liburu batzuekin.

Fernandoren obra famatuena *Gudaoste ametsak*, *Ortzadarra sutan*, *Izar-malkoak*, *Seximenduz*, *Gloria Mundi*, *Leonardoren hegoak* eta *Itzalen Sua* dira. Azken hiru nobela hauek gaztelaniaz itzuliak izan dira eta sari batzuk jaso ditu idazleak haiengatik. Leonardo da Vinciren biografia bat idatzi zuen.

Sarrera

Leonardoren hegoak Fernando Morillok idatzitako abenturazko nobela bat da. Lehen aldiz 2008ko azaroan plazaratu zen Ibaizabal argitaletxean, Ekin bilduman. Geroztik beste lau edizio plazaratu dira. 2009ko Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Sarian finalista izan zen. Gainera, gaztelaniaz ere argitaratu da eta Hache saria (Cartagena) irabazi zuen 2012an, DBHko irakurleek botoa emana.

Istoria Florentzian gertatzen da batez ere, baina baita Donostian ere, istorioaren azken atala batez ere. Gaur egungo garaian kokatuta dago, eta beraz ez da Leonardo da Vinci agertzen, beraren inguruko kontakizun eta deskribapen ugari azaltzen diren arren.

Haritz 15 urteko gazte bat da. Adin konfliktibo horretan dagoela, ez dauka batere argi zer demontre nahi duen berak, eta are gutxiago zertarako gauza den. Florentziara heltzean, abentura batean murgilduko da eta horrek bere burua aurkitzeko aukera emango dio. Protagonistaz gain, osaba Karlos, Amalur, Juliet eta Oier dira istorioan zehar garrantzi handiena duten pertsonaiak.

Genero narratiboa eta narratzaile pertsonaia ditu. Haritzek bere esperientzia kontatzen digu, bere ikuspuntutik. Horretarako lehenengo pertsona erabiltzen du. Gainera, Leonardo da Vinciren eta zientzialari eta artista garrantzitsu batzuen deskribapenak egiten ditu, haien inguruko pasadizoak kontatzen ditu eta zientziaren, artearen eta historiaren zenbait bitxikeria kontatzen ditu. Mota guztietako gaiak jorratzen dira liburuan zehar: historia, artea, zientzia, maitasuna, adiskidetasuna... Dena protagonistak bere burua aurkitzeko egiten duen abentura batean.

Leonardoren hegoak

Kokapena

Lehen aipatu bezala, garaiari dagokionez, gaur egungo istorioa da, gure gizartearen ezaugarriak agertzen baitira (ordenagailuak, telefono mugikorak, gaur egungo gazteen zaletasun berdinak dituzten pertsonaiak...).

Haritz Donostian bizi da, eta beraz istorioaren zati batzuk bertan kokatzen dira. Hala ere, protagonista Florentziara joaten da egun batzuk igarotzeko asmoz, baina egonaldia luzatu egiten da eta istorioaren zati handiena bertan gertatzen da. Gainera, Frantziara doa, Morand izeneko herri batean altxorra aurkitzeko pistak bilatzeko asmoz.

Gaia

15 urteko mutil baten abentura kontatzen da, Florentziara heldu eta Leonardo da Vinciren altxor sekretu baten bila doanean. Bere burua aurkitzeko aukera emango dion bidaia horretan denetarik aurkituko du: bahiketak, dokumentu sekretuak, maitasuna, borrokak...

Argumentua

Haritz Florentziara joango da osaba Karlosekin egun batzuk pasatzera. Bertara heltzean, ez du osaba inondik ere aurkituko eta gauza arraroak gertatzen hasiko dira: Leonardo da Vinciren eskuizkribu sekretuak, telefono deiak, bahiketak... Abentura batean murgilduta dagoela konturatuko da. Hori gutxi balitz, gustatzen zaion neskak berarekin bidaiatuko du altxorra aurkitzeko asmoz. Horrela, Leonardoren hegoak ezagutuko ditu Haritzek: bizitzaren irakaspenik ederrena.

Gertaera nagusiak

1. Haritz 15 urteko gazte bat zen. Gurasoekin zuen harremana ez zen oso ona eta Florentziara bidaiatzea erabaki zuen, osaba Karlosekin egoteko.
2. Aireportura ailegatzean ez zuen osaba inondik aurkitzen. Oierrekin, bere lagunik onenarekin, hitz egin zuen. Oier, gaixotasun kroniko bat zuen arren, mutil alaia zen eta bere laguna animatzea lortu zuen.
3. Haritz hirira joan zen, osabaren etxean gauzak utzi eta Florentziatik buelta bat emateko. Amalur (txikitan bere neska-laguna izan zena) aurkitu zuen bidean. Haritz oraindik gustaturik zegoen Amalurrekin, baina neskak bere mutil-laguna aurkeztu zion.
4. Berrito osabaren etxean zegoenean, Julieten (Karlosen lagun baten) telefono dei bat jaso zuen. Honek esan zion osaba arazo txiki batean sartuta zegoela, eta bere gela ezkutuan zeuden eskuizkribu batzuk hartu behar zituela, atea irekitzen saiatzen ari ziren gizon ezezagun batzuk etxera sartu baino lehen. Haritzek gizonak ikusi zituenean, balkoitik jaitsi zen kalera, dokumentuak hartzeko astirik izan gabe.
5. Julietekin bildu zen, ezer ulertu gabe. Julietek gertatzen ari zena kontatu zion: osabak eskuizkribu eta ohar batzuk jaso zituen, antza Leonardo da Vincirenak

zirenak, altxor batera eramaten zutenak. Giorgio izeneko gizon batek osaba bahitu zuen horiek lortzeko.

6. Orduan Giorgioren dei bat jaso zuten. Leonardoren dokumentuak eskatu zituen osabaren askatasunaren truke. Haritzek trukea egitea erabaki zuten. Horretarako Karlosen etxera joan zen. Gizon ezezagun horiek han zeudenez, balkoitik sartu eta dokumentuak hartu zituen, kontu handiz. Balkoitik salto egin zuen berriz ere, Julietengana heltzeko.
7. Giorgiorekin geratu ziren eta trukea egin zuten. Osaba ondo zegoen. Hala ere, osabak misterioa osatu nahi zuen eta Haritzen kamarerekin dokumentuei egindako argazkiak aztertzen hasi ziren. Oierrek, bitartean, Donostiatik informazioa bidaltzen zien.
8. Dezifratu zuten Florentziatik gertu zegoen herri batera joan behar zirela, Polcantora, baina ez zuten garraiorik. Amalurri furgoneta eskatu zioten eta bera haiekin joan zen. Polcanton ez zuten ezer aurkitu, beraz, dokumentuak berriro aztertu eta Morand izeneko Frantziako herri batera joan behar zirela konturatu ziren, Leonardo handik hurbil hil zelako. Bidaia egin zuten.
9. Herri horretan ez zuten ezer aurkitu. Gaua igartzeko hotel batera joan ziren. Gauean, Amalurrek Francescorekin (bere mutil-lagunarekin) eztabaidatu zuen, hau jeloskor zegoelako. Hurrengo goizean, han agertu zen Francesco, eta Haritzekin borroka bat izan zuen. Haritz irabazle atera zen.
10. Itzulerako bidean konturatu ziren Florentziatik gertu zegoen herri batera joan behar zutela, Moriano izeneko herrira. Morianora heltzean, haitzulo batzuetan sartu ziren. Bat-batean, Giorgio eta beste gizonak agertu ziren. Armak zituzten eta beraz haien esanak bete behar zituzten. Haitzuloko gela ezkutu batean, Haritzek kutxa bat aurkitu zuen. Giorgiok kutxa zabaldu eta luma sinple batzuk atera zituen.
11. Kanpoan, osaba, Juliet, Amalur eta Haritz atxilotu zituzten. Haritzen ausardiari esker, askatzea lortu zuten eta Giorgio eta gizonak lotu zituzten. Pentsatzen zegoela, Haritz konturatu zen luma horiek Leonardoren imajinazioaren hegoak zirela, adierazten zutenak benetakoa altxorra gure hegoez egiten duguna dela. Mirespenaren hegoak ziren.
12. Orduan, Karlosek dena azaldu zion: Oierrekin batera kontu guztia asmatu zuten, Haritz bere gaitasunaz konturatzeko. Misterio guztia pelikula bat izan zen eta haiek pelikula horretako antzezleak izan ziren.
13. Hala ere, Amalurren eta Haritzen arteko maitasuna benetakoa zen. Haritz bi aste gehiago geratu zen Florentzian, egun batean Oierren amak deitu zion arte. Oier ospitalean zegoen, larri.
14. Egun horretan Donostiara bueltatu eta ospitalera joan zen. Oier larri zegoen, eta azken aldiz hondartzara joateko eskatu zion. Haritzek hori egin zuen. Amaieran

Oierrek begiak itxi zituen betiko, gehien gustatzen zitzaion lekuan eta nahi zuen pertsonaren alboan.

Egituraketa

Narratzailea Haritz da, istorioaren protagonista. Idazleak narratzaile pertsonaia eta iragana erabili ditu, protagonistak berak bizitako abentura kontatzen duelako. Eleberria 30 kapitulutan banatuta dago, bakoitza zenbaki eta izenburu batez adierazita. Gertaera nagusiak ordena kronologikoan agertzen dira, baina haien artean Haritzen oroitzapen batzuk (Florentzian osabarekin egon zen beste aldi batzuen memoriak, adibidez) edo pertsonaia garrantzitsuen istorio batzuk azaltzen dira, flash-back eran.

Pertsonaiak

Protagonista Haritz da, baina aipatzekoak dira Karlos, Amalur, Juliet eta Oier.

Haritz

15 urteko gazte bat da. Haren ustez, gaztea izatea lanbide krudela da. Seme bakarra da eta gurasoekin duen harremana ez da oso ona. Etengabean iristen zaizkio aholkuak eta irakaspenak, baina berak ez ditu behar. Bi pertsona garrantzitsu ditu bere bizitzan: Oier, bere lagun mina, eta osaba Karlos. Florentzia salbajantzi bat da bere bizitzako une penagarrietan, han bizi baita osaba Karlos. Adin konfliktibo horretan dagoela, ez daki zer nahi duen eta askoz gutxiago zertarako gauza den. Bizitzan galdurik dabil, baina hitzekin ondo moldatzeak asko laguntzen dio. Kultura gustatzen zaio: koadroei, eskulturei eta artisten hilobieiei begira eman ditzake orduak eta orduak.

Karlos

Karlos Haritzen osaba da. Apur bat jenioa, apur bat eroa eta gizon misteriotsua da. Harentzat bizitzea abentura etengabe batean ibiltzea da, eta ez da inoiz aspertzen. Lur planetako bere bertsio propioa bizi du eta bere erara dabil erabat. Karlosentzat ezin da denbora igaro, horrelako txikikerien gainera dago. Duen guztia oraina da. Haritzi ez dio inoiz alferrikako sermoirik ematen, bizitza kontatu baino ez dio egiten. Ezinezkoa da harekin haserretzea, umore onez baitago beti, gauza berriak ikasteko irrikaz. Fisikoki ez

da oso ederra: gizon potolo samarra eta burusoila da, baina irribarrea beti ahoan daraman horietakoa.

Amalur

Haritzen lehen neska-laguna izan zen. 16 urte ditu eta neska polit eta alaia da. Orain Francesko izeneko nobioa dauka, 20 urtekoa. Klaserik ez duenean aitari laguntzen dio fruta-dendan. Ez zaio lan txarra iruditzen, baina ez du bere burua fruta saltzen ikusten hemendik urte batzuetara. Berak ere ez daki zer nahi duen, apur bat galduta dabil. Historia, filosofia edo arte ederrak ikastea gustatuko litzaioke, baina ez du ezer argi ikusten. Mendia, literatura eta zinema gustatzen zaizkio. Batzuetan Franceskorekin buelta bat ematera joaten da, baina beste batzuetan bakarrik egotea nahiago du.

Juliet

Osaba Karlosen laguna da. Matematikaria da. Berak ere bizitza asko estimatzen du, Karlosi esker, hein handi batean. Duela zazpi edo zortzi urte ezagutu zuten elkar, Berlinen. Berarekin egotea asko gustatzen zaio bere umore ona transmititzen diolako. Hala ere, Karlosek bere onetik ateratzen du askotan, baina horrek, sumindu baino gehiago liluratu egiten du. Leonardoren hegoak bilatzen lagunduko dio Haritzi.

Oier

Haritzen lagun mina da. Gaixotasun bat du: fibrosi kistikoa, minusbaliotasun progresiboa eta epez aurreko heriotza. Oso nekez mugitzen da, oso argal dago eta %10eko probabilitatea dauka 30 urterekin bizirik jarraitzeko. Hala ere, ahal duen moduan amets egiten du eta bera da beti Haritz animatzean duena. Mutil ausarta eta alaia da, eta irribarre bat ateratzeko indarrak biltzen ditu beti, bizitzak jarri dizkion zailtasunei aurre eginez. Ez dio heriotzari beldur eta geratzen zaion denbora ahal duen beste aprobeixatu nahi du.

Baliabideak

Narratzailea istorioko protagonista da eta berak bizi izandako abentura kontatzen du. Lehenaldia eta lehenengo pertsona erabiltzen ditu horretarako. Eleberri hau gazteei zuzenduta dago, beraz, lexikoa ez da bereziki zaila. Gaur egun gazteek erabiltzen dituzten zenbait hitz erabili ditu, irakurlearen interesa pizteko. Horren adibide bat da pasarte hau:

“Alboko emakumearen oihuak ipurtzulotik atera zidan tinpanoa. Joder, ze sustoa. Oihuak, esan nahi dut. Hegazkinaren dardarak ere dezente akojonatzen bazuen ere.” (18)

Mota guztietako gaiak jorratzen ditu: gurasoekin arazoak, maitasuna, adiskidetasuna, gure burua aurkitzeko nahia, heriotza, lagun onen balioa... Kulturari, zientziari eta historiari buruzko bitxikeria batzuk ere kontatzen dira istorioan zehar.

“Biak izan dira pertsonaia aipagarriak. Valfiernori dagokionez...” (120)

Deskribapen ugari egiten ditu, pertsonaiak deskribatzeko batez ere. Askotan, metaforak erabiltzen ditu horretarako:

“Karlos itsasargi moduko bat da ni bezalako batentzat. Hark beti du argia ni zulo arriskutsuetatik salbatzeko...nahiz eta tarteka argi horrekin itsutu ere egiten zaituen.” (91)

Istorioaren hasieran protagonista galduta dabil bizitzan. Ez daki zer nahi duen edo zertarako kapaza den. Bere bidea aurkitzeko nahia adierazteko metafora bat erabiltzen du, behin baino gehiagotan:

“Amesten dut pozez egiten dudala negar, kiskaltzen ez nauen eguzki baterantz hurbiltzean.” (12)

Istorioaren amaieran, Protagonistaren lagunik onena hil egiten da. Heriotza azaltzeko, beste metafora bat erabili du:

“Eskutik heldu zidan. Bat-batean sentitu nuen nola zabaltzen zituen hegoak. Nola hasten zen hegan.” (210)

Iritzia

Leonardoren hegoak gure adinerako liburu egokia da. Izan ere, protagonista 15 urteko gazte bat da eta nerabezaroari lotutako hainbat kontu azaltzen ditu. Liburu honek mezu interesgarri bat du, gogoeta egitera eramaten gaituena. Haritz munduan galdurik dabilen gazte bat da, eta gurasoekin duen harreman txarrak ez dio batera laguntzen. Horren adibide da eleberriko esaldi hau:

“Diotenez, itsas-ibilaldia ona denean, familia euskarria da, edozeri eusten dion zutabe sendo bat. Beharbada. Nik ez dakit. Nire gurasoek eraiki zuten ontziak hamaika zulo ditu txoko guztietan.” (13)

Protagonistaren egoerak gure gizarteko gazteen artean hain ohikoa den egoera islatzen du. Hasieran ez du harengan sinetsi nahi eta ez daki zertarako gauza den. Eleberrian zehar Haritzek Leonardoren hegoak aurkitzeko bizi duen abentura kontatzen da. Istorioaren amaieran konturatuko da bidean bizitako guztia dela altxorrik handiena, zertarako kapaza den ohartzeko aukera eman baitio. Leonardoren hegoak aurkitzen dituenean Haritzek hau esaten du:

“Hobeto esanda, garaitu bai, baina neure burua. Beste bide desberdin bati eman diot hasiera. Beste hasiera bat.” (197)

Beraz, aurki dezakegun altxorrik handiena geure burua aurkitzea dela adierazi nahi izan du idazleak.

Bidean, adiskidetasuna eta maitasuna bizi ditu protagonistak, eta inguruan dituen pertsonak eginkizun garrantzitsua dute istorioan zehar. Izan ere, maite dituen pertsona horiek bizitzaren altxorra aurkitzera bultzatzen dute eta bidean aurkitzen dituen oztopoak gainditzeko laguntzen diote. Horren adibide da eleberriko esaldi hau, Haritzek bere bi lagunei buruz hitz egiten duenean:

“Eskerrak haiei, ustez begiratu behar den moduan begiratzen irakatsi didatelako. Haiengatik dakit egunen batean hegan egiten ikasiko dudala, eta kiskaltzen ez duen eguzki erraldoi horretan bainatu ahal izango naizela.” (14)

Eleberriko pertsonaiak oso bereziak dira. Alde batetik, Karlosek oso izaera berezia du: harentzat bizitzea abentura etengabe batean ibiltzea da, eta ez da inoiz aspertzen. Bizitzaren bere bertsio propioa bizi du eta bere erara dabil erabat. Protagonistak esaldi hau esaten du bere osabari buruz hitz egiten duenean:

“Harekin egotea gar artean ibiltzea bezala zen. Hazkura ematen zuen, baina, ene, zer bizirik sentitzen nintzen!” (17)

Beste alde batetik, Oierren izaera ere deigarria da. Gaixotasun bat duen arren, berak ere bizitza asko estimatzen du. Bizitzak jarri dizkion zailtasunei aurre egiten die eta irribarre bat ateratzeko indarrak biltzen ditu beti. Bizitza ikusteko modu horiek

irakurlearen interesa pizten dute. Liburuaren hasieran Leonardo da Vinciren esaldi bat agertzen da, liburu honen mezua ezin hobeto adierazten duena:

“Bizitza estimatzen ez duenak ez du hura merezi.”

Beraz, liburu honek bizitzaren inguruko irakaspén on bat ematen du, gazte baten abenturazko istorio simple batean islatuta. Originala eta entretenigarria da eta irakurlearen interesa pizten duten zenbait gai lantzen ditu.

Bibliografia

Leonardoren hegoak, Fernando Morillo. Ibaizabal.

Webgrafia

http://www.fernandomorillo.eu/Liburu_Leonardoren_hegoak.html

<http://www.galtzagorri.org/euskara/idazleak/fernando-morillo-grande/bibliografia/leonardoren-hegoak?p=1>

<http://www.idazleak.eus/euskara/idazleak/?q1=fernando&q2=morillo>

http://eu.wikipedia.org/wiki/Fernando_Morillo

http://eu.wikipedia.org/wiki/Leonardoren_hegoak

<http://litforoa.com/viewtopic.php?f=15&t=1280>